

Hasi mugitzen...

Ayalde ikastetxeak Familiako
Ibilaldi Solidario bat antolatu
du

2007 Mar 17

Lelo honekin, Ayalde ikastetxeak
Familiako Ibilaldi Solidario bat
antolatu zuen, FISC Fundazioa-
HIRUGARREN MUNDUAk
babesturiko Kongoko Nazioarteko
egitasmorako dirua biltzeko.
Egitasmo honen helburua da,
zehatzean, besoetako egitea kongotar
neskatilak.

Eli Bengoetxea, ikastetxeko
trebakuntzako zuzendariordearen
hitzetan, “ibilaldi honetako helburua
bikoitza izan da: batetik,
hezkuntzako komunitatea
besteentzako laguntasunean buru-
belarri sartzea eta, bestetik, familien
arteko loturak handitzea, jarduera
solidario batean uztartuz”.

Parte-hartzaileen kopurua 400
pertsonatik gorakoa izanik, ibilaldiak
bi aukera zituen: bata, laburra -hiru
kilometrotik gorakoa-; bestea, luzea
-10 kilometrokoa-. Parte-hartzaile
bakoitzak 2 euro ordaindu zituen
bizkar-zenbakiko, eta baita
ibilaldiaren helbururako dohaintzak
ere. Bildutako dirutza, 2.000 eurotik
gorakoa izan zen.

Ibilaldia, udalaren laguntza izan
zuen, Loiun garatu zen 4 ordutan
zehar. Amaitzean, sari-ematea izan
zen familia irabazleentzat. Hona,
sari-ematerako gondatuak: Maite

Luzuriaga, FISC-HIRUGARREN
MUNDUA fundazioaren presidentea,
Juan Carlos Fernandez, ASPANOVAS
BIZKAI Akoa eta gure lurraldeko
Elikagaien Bankuko presidentea.

Asmoa da jarduera hau urtero egitea
eta, urte bakoitzean batzen den
dirutza, ikastetxeak laguntzen
diharduen 11 egitasmoen arteko
batentzat izatea.

Gaur egun, ikastetxeak,
solidaritatezko 11 egitasmotan
dihardu lanean, euren arteko batzuk
nazioartekoak (KONGOko
Nazioarteko Egitasmoa -FISC
Fundazioarekin lankidetzan-,
Kazasjstan-erako jostailu eta eskola-
materiala biltzeko kanpaina, eta
baita Nazioarteko Lankidetzaren GKE-
rekin lankidetzaren). Laguntzen
dihardugun beste egitasmoak,
tokikoak dira: Elikagaien Bankua,
Aresti Kondea, Barrika,
Portugaletako San Juan Bataiatzailea

Egoitzen jantokiak, Uribe Kostako jantokia, Hospitalitoa eta Gabonetako kanpainak. Halaber, ASPANOVAS elkarteak lagundu egiten dugu, honek enkargatu egiten dizkigun zereginetan.

Ekimen honen bidez nahi da lortu ikasle neskatilak eta familiak gai izan daitezela inguru sozialean parte hartzeko, gizarte gizakoiago baterako urratsak emanaz. Horrela, egia bihurtuko dira San Josemariaren hitzak *Conversaciones* liburuan: “Karitatea -Maitasuna- bizi izanik, kristauaren giza eta naturaz gaindiko bertute guztiak bizi egiten dira. Karitateak, hurrengoak denak bizi izatea eskatzen du: justizia, solidaritatea, familiako eta gizarteko erantzukizuna, txirotasuna, alaitasuna, garbitasuna, adiskidetasuna...” (62 zk.)
